

7. AKTA

GOBERNU BATZORDEAren bilkura, 2002-05-27an egina.

NON: Pasaiako herriko Udaletxean

NOIZ: 2002ko maiatzaren 27an

BERTARATUAK: Joseba Xabier Portugal Arteaga jn.

Ricardo del Pozo Gil de Albornoz jn.

Obdu Lorenzo de Dios and.

Bilkura buru: Juan Carlos Alduntzin alkate jauna

BERTARATU EZ DIRENAK: Angel Ouviña Vidal

Gobernu Batzordearen bilkura egiteko elkartu dira goian izendatu ditugunak, Joseba Belaustegi Cuesta udal idazkariarekin batera, zehaztutako data eta tokian, aurretik bidali zaien bilera-deiari jarraiki. Angel Ouviña Vidal zinegotziak ez du justifikatu etorri ez izana.

Bilkura buruak ikusi du batzordekide aski badagoela Gobernu Batzordea eratzeko eta bilkurari hasiera eman dio 18.00etan, aztergaien zerrendari helduz.

1.-Aurreko bilkurako akta, 2002-01-21ekoa, irakurtzea eta onartzea

Bilkuran diren batzordekide guztiek, aho batez, idazpuruko aktari dagoen bezala ondo dagoela iritzi diote, eta bere horretan dagokion Akta Liburuan transkribatzea erabaki dute.

2.-02/6. kontu eta fakturen zerrenda.

Gobernu Batzordeak, bilkurara agertu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako kontuak eta fakturak onartzea erabaki du:

Zk.: 6/02

Zenbatekoa: EHUN ETA HIRUROGEITA HAMASEI MILA, BERREHUN ETA BERROGEITA SEI EURO ETA HOGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (176.246,37 euro). Halere, 907-000-2002 fakturan, transkribatze-akats bat dago zuzendu beharrekoa:

“Peñalba Garmendia Santiago” ipintzen duen tokian, “Manu Arruabarrena Florez” jarri behar da.

3.- 2. ziurtagiria, “Meipi-Ondoa 1.2.04 Exekuzio Unitatearen Urbanizazioaren” obrarena

Gobernu Batzordeak ondoko obra-ziurtagiria onartu du, bilkuran diren zinegotzi guztien adostasunez:

Zk.: 2. zk.a

Obra: Meipi-Ondoa 1.2.04 Exekuzio Unitatea.

Obra zuzendaria(k): Juan Carlos Lapazaran jn. (arkitektoa), Igor Urrutia (Bideetako Ingeniaria) eta Jose Mari Irazusta (Udal Aparejadorea).

Enpresa kontratistaren alde: OTEGI ERAIKUNTZAK S.L.

Zenbatekoa: HOGEITA HAMAZAZPI MILA, BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA SEI EURO ETA HOGEITA HEMEZORTZI ZENTIMO (37.966,38 euro).
Kontusail honetatik: D-1343/01

4.- 13. Ziurtagiria: "Ulia Etorbidea eta Azkuene kalea lotzeko" obrarena.

Gobernu Batzordeak ondoko obra-ziurtagiria onartu du, bilkuran diren zinegotzi guztien adostasunez:

Zk.: 13.a

Obra: Ulia Etorbidea eta Azkuene kalea lotzeko obra.

Obra zuzendaria(k): Eduardo Satostegi jn. (Eraiki, S.L.)

Enpresa kontratistaren alde: DUMBOA ERAIKUNTZAK, S.A.

Zenbatekoa: LAUROGEITA ZAZPI MILA ETA BAT EURO ETA LAUROGEITA HAMAIIKA ZENTIMO (87.000,91 euro).

Kontusail honetatik: D-1494/01 eta D-1497/01.

5.- 2. ziurtagiria: "Arizabalo Jauregiaren Zaharberritzea, Donibane kalea, 19an" obrari dagokiona.

Gobernu Batzordeak ondoko obra-ziurtagiria onartu du, bilkuran diren zinegotzi guztien adostasunez:

Zk.: 2. Ziurtagiria.

Obra: Arizabalo jauregiaren zaharberritzea, Donibane kalea, 19an

Obra zuzendaria(k): Iñaki Ormazabal jn. (Udal Arkitektoa) eta Jose Mari Irazusta jn.

Enpresa kontratistaren alde: TECPROPASA EUSKADI, S.A. (TEUSA) eta J.URRACA ERAIKUNTZAK, S.A. (CJUSA), (U.T.E. ARIZABALO).

Zenbatekoa: BERROGEITA SEI MILA, BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI EURO ETA HOGEITA HEMERETZI ZENTIMO (46.968,39 euro).

Kontusail honetatik: D-1622/01.

6.- Zigor espedientea, ixteko ordua ez betetzeagatik Erreterria, 3 kalean. Noarte Cluba.

Gobernu Batzordeak aho batez ondorengo erabakia hartu du:

EGITATEZKO OINARRIAK

LEHENA.- Alkateak 2001eko maiatzaren 31n ebazpena eman zuen Noarte Tabernako arduradun Sora Banamarren kontra espediente zehatzaileari hasiera ematen ziona. Udaltzaingoak egindako ordutegi-aktaren arabera, taberna 2001eko urtarrilaren 5ean goizeko 4,25etan irekita zeukan, eta barruan bi pertsona zeuden; tabernan sartu-irtena egiteko ez zegoen eragozpenik, eta edariak zerbitzatzen ari ziren.

Aurreko horrek ondoko arauak urratzen ditu: 296/1997 dekretuan, abenduaren 16koa, Jendaurreko Ikuskizun eta Jolasen Ordutegiari buruzkoa; eta, 210/1998 dekretuan, uztailaren 28koa, aurrekoa

aldatzen duena. Timón bezelako taberna bereziak (neguan eta ostiraletan) 3:00 etarako itxiak egon behar dira.

BIGARRENA.- 2001eko ekainaren 13ean jakinarazi zitzaion espediente honi hasiera ematen zion ebazpena, hamabost egunetako epea emanez alegazioak idatziz aurkezteko. Ekainaren 20an alegazio idatzi bat aurkeztu zuen taberna irekita zeukala onartuz, baina trenea funtzionatzen noiz hasiko zain zeuden bi neskarengatik zeukala irekita eta ez zitzaiola inori sartzan uzten eta ez zela edaririk zerbitzatzeko.

HIRUGARRENA.- Akordio proposamena 2002ko martxoaren 13an jakinarazi zitzaion, entzunaldiaren izapidean alegazioak aurkezteko.

FROGATUTZAT JOTZEN DIREN GERTAERAK

Frogatutzat jotzen da Sora Banamar, Noarte Tabernako jabeak taberna ekainaren 1ean goizeko 4,25etan irekita zeukala, eta barruan bi pertsona zeudela; tabernan sartu-irtena egiteko ez zegoen eragozpenik, eta edariak zerbitzatzeko ari ziren.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

LEHENA.- Aipatutako gertaerak eta erruztatuaren erantzukizuna egiaztatuak izan dira Udaltzaingoak 2001eko urtarrilaren 5ean egindako aktaren bitartez, eta erruztatuak neurri batean onartu egiten dituelako.

BIGARRENA.- Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituen azaroaren 10eko 4/1995 legearen 34 g) atalaren arabera, honako gertaera hauei zigor arina dagokie: “ikuskizunen hasiera edo amaiera atzeratzea, edota ikuskizun nahiz jolas jardueretako lokalak irekitzeko eta ixteko orduak ez errespetatzea”.

Lokalak irekitzeko eta ixteko orduak honako dekretuetan arautzen dira: 296/1997 dekretuan, abenduaren 16koa, Jendaurreko Ikuskizun eta Jolasen Ordutegiari buruzkoa; eta, 210/1998 dekretuan, uztailaren 28koa, aurreko aldatzen duena,.

HIRUGARRENA.- Urraketa horren erantzulea Sora Banamar, Noarte tabernako jabea da.

LAUGARRENA.- Aipatutako legearen 35.3 eta 36 ataletan zehazten da lege urratze arintzat jotako kasuetan aplikagarri direla 200.000 pezetarainoko zigorrak, eta kasu honetan proportzionala da 30.000 pezetatiko isuna jartzea, kontuan hartuta ez dela herritarren aldetik salaketarik jaso.

AKORDIOA

LEHENENGOA.- Sora Banamar andrea, Noarte Tabernako jabea, zigortzea, 180, 3 Euroko isuna ezarritik, 4/1995 legearen (azaroaren 10ekoa, jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituen) 34 g). atala urratzeagatik, Noarte bezelako taberna bereziak egun horretan (ostiraletan) 3:00etarako itxiak egon behar dira, eta 4:25etan irekia zuen, barruan bi pertsona zeuden; tabernan sartu-irtena egiteko ez zegoen eragozpenik, eta edariak zerbitzatzeko ari ziren

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea honen kontra jar daitezkeen errekurtsioen berri emanez.

7.- Zigor espedientea zarata ateratzeagatik Terranova, 3 kalean. Pub Zodiaco.

Gobernu Batzordeak aho batez ondorengo erabakia hartu du:

EGITATEZKO OINARRIAK

LEHENA.- Alkateak 2001eko ekainaren 4ean ebazpena eman zuen, Zodiaco Tabernako jabea den Rafael Angel Martinez Irigoyenen kontra espediente zehatzaileari hasiera ematen ziona. Udaltzaingoak 2001ko apirilaren 1ean Pasaiako Terranova 3 -1. 4. ateko etxebizitzan egindako zarata-neurketako aktaren arabera, han agertu baitziren bertakoen salaketa jaso ondoren, egiaztatzen da delako etxebizitza horretan zegoen zarata ondoko maila hauetara iristen zela, eta zarata hori funtzionamenduan zegoen Pub Zodiacoetik ateratzen zela.

2001eko apirilaren 1eko 01:05etan:

Logelan 32,5 dB (A)
Egongelan 35,6 dB (A)
Besteak.....37,0 dB (A)

Establezimenduetatik ondoko etxebizitzetara irits daitezkeen zarata mailak Ordenantzaren 4.4 artikuluan jasotzen dira:

Egunez (8etatik 22etara) Gauez (22etatik 8etara)

Egongeletan.....	45 db (A)	35 dB (A)
Logeletan	40 dB (A)	32 dB (A)
Zerbitzu eta gune komunak	45 dB (A)	45 dB (A)

Aurreko horrek ondoko araua urratzen du: Udalerriko Bizilagunak Babesteko Ordenantzaren 4.4 artikulua (G.A.O. 1985ko azaroaren 8koa).

BIGARRENA.- 2001eko ekainaren 12ean jakinarazi zitzaion espediente honi hasiera ematen zion ebazpena, eta alegazioak idatziz aurkezteko hamabost eguneko epea eman zitzaion. Ekainaren 27an idatzi bat aurkeztu zuen ondorengo alegatuz: daukan musika ekipoak ezin duela horrenbesteko zarata eragin, musika-torre arrunta baita, eta neurketa egin baino lehen udaltzainek musika maila altua zuela ohartarazi behar ziotela edo bestela, neurketa, bera aurrean zela, egitea.

HIRUGARRENA.- 2002ko apirilaren 11n espedientearen instruktoreak egindako akordio proposamena jakinarazi zitzaion, eta bertan interesdunaren alegazioak ezesten dira; hamabost laneguneko entzunaldi epea ematen zaio alegazioak egiteko, eta epe horretan ez du ezer aurkeztu.

FROGATUTZAT JOTZEN DIREN GERTAERAK

Frogatutzat jotzen da 2001ko apirilaren 1ean Pasaiako Terranova 3,1.-4 etxebizitzan, funtzionamenduan zegoen Pub Zodiacotik ondoko zarata mailak ateratzen zirela:

2001eko apirilaren 1eko 01:05etan:

Logelan 32,5 dB (A)
Egongelan 35,6 dB (A)
Besteak.....37,0 dB (A)

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

LEHENA.- Aipatutako gertaerak eta erruztatuaren erantzukizuna, Rafael Angel Martinez Irigoyenena, alegia, egiaztatuak izan dira Udaltzaingoak 2001eko apirilaren 1ean egindako aktaren bitartez.

BIGARRENA.- Bizilagunak Babesteko Ordenantzaren 6.4 e) artikuluan (1985eko azaroaren 8ko G.A.O.) urraketa oso larritzat jotzen da, eta 4.4 artikuluekin erlazioan jarri behar da, azken baimendutako gehienezko zarata mailak ezartzen baititu. Urraketa horri 10.000 eta 15.000 pezeta bitarteko isuna dagokio Ordenantzaren 6.5 artikuluen arabera.

HIRUGARRENA.- Urraketa horren erantzulea Rafael Angel Martinez Irigoyen, Pub Zodiacoren jabea da.

LAUGARRENA.- Aipatutako Ordenantzaren 6.5 artikuluan zehazten da lege urratze larritzat jotako kasuetan aplikagarri direla 15.000 pezetarainoko zigorrak, eta kasu honetan proportzionala da 15.000 pezetatako isuna jartzea, kontuan hartuta herritarren salaketa jaso dela.

BOSGARRENA.- Gobernu Batzordea da organo eskuduna espediente honi amaiera emateko eta dagokion zigorra jartzeko, 1999ko uztailaren 12ko Alkatetza Ebazpenak bere gain uzten baitu eskumen hori.

AKORDIOA

LEHENENGOA.- Pub Zodiacoren jabea den Rafael Angel Martinez Irigoyen zigortzea, 90,15 euroko isuna ezarriz, 2001ko apirilaren 1ean Bizilagunak Babesteko Ordenantzaren (1985eko azaroaren 8ko G.A.O.) 4.4 artikulua urratzeagatik, baimendutako gehienezko zarata mailak ezartzen dituen.

BIGARRENA.- Jakinaraztea zigortuari egintza hauek errepikatzeotan Udalak jarduera aldi baterako ixtea erabakiko duela Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskugarri buruzko 2414/1961 azaroaren 30eko dekretuaren 28.b) atalaren arabera.

HIRUGARRENA.- Proposamen hau erruztatuari jakinaraztea, beraren kontra jar daitezkeen errekurtsoen berri emanez.

8.- Ondare erantzukizunezko hainbat erreklamazio.

A) Plus Ultra Seguros-ek egindako erreklamazioa, beren aseguraturua den Fernando Vidal jaunaren izenean, honen ibilgailuari (SS-0824-BG), 02-5-26an Azkuene, 40an zabor-dukiontzi batek eragindako kalteengatik.

Plus Ultra Seguros aseguru-etxeak erreklamazioa egin zuen, beren aseguraturua den FERNANDO VIDAL FERNANDEZ jaunaren izenean. Jaun honek esatera, zabor-dukiontzi bat mugitu egin zelako bere ibilgailuak, SS-0824-BG matrikuladunak, kalteak izan zituen, 2002ko maiatzaren 26an, Azkuene kaleko 40. zk.aren parean, eta jasandako kalteengatik 191,24 euro eskatu ditu, erreklamazioarekin batera aurkeztu duen peritu-txostenaren arabera.

Obra eta Zerbitzuetako Departamentuak egindako txostenean adierazten denez, hiri-hondakin solidoen dukiontzien balazta-sistema bat dute, zehazki balazta bat gurriletako batean dukiontzia hustutakoan martxan jartzen dena, eta desblokeatzeko giltza berezi bat behar izaten da, eta beraz, ez dago kausazko loturarik zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren eta erreklamatzeko den kaltearen artean.

Honegatik guztiengatik, Gobernu Batzordeak, bilkuran dauden zinegotzien adostasunez

ERABAKI DU

LEHENA.- Ezestea PLUS ULTRA SEGUROS Aseguru-etxeak egindako erreklamazioa, ez delako frogatu kausazko loturarik zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren eta sortutako kaltearen artean.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea, honen aurka eskatzaileak jar ditzakeen errekurtsuen berri emateaz batera.

B) Domingo Touriño Santiago jaunak egindako erreklamazioa, Azkuene Parkeko sarreran espaloi-ertza jotzean gurril-aulkian izandako kalteengatik, 2002ko martxoaren 24an.

Domingo Touriño Santiago jaunak, 2002ko apirilaren 2an, erreklamazioa egin zuen, Azkuene Parkeko sarreran espaloi-ertza jotzean gurril-aulkian izandako kalteengatik. 55 euro eskatu ditu kalte-ordain gisa.

Udaltzaingoak txostena egin zuen 2002ko apirilaren 17an; bertan jasotzen da erreklamatzailerak adierazitako gertaerak benetan gertatu zirela eta erreklamatzailerak aipatzen duen espaloi-ertza ez dagoela prestatua gurril-aulkiak pasatzeko.

Honegatik guztiengatik, Gobernu Batzordeak, bilkuran dauden zinegotzien adostasunez

ERABAKI DU

LEHENA.- Onestea erreklamazioa eta DOMINGO TOURIÑO SANTIAGO jaunari 55 euro ordaintzea ondare-erantzukizun gisa bere jabetzapeko gurril-aulkian eragindako kalteengatik.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea, honen aurka eskatzaileak jar ditzakeen errekurtsuen berri emateaz batera.

C) Nieves Rubio Martinez andreak egindako erreklamazioa, 01-10-13an Euskadi Etorbideatik Gudari plazara bitarteko oinezkoen pasabidean izan zuen erorikoagatik, zabor bilketako kamioiak isuritako ur-orban koipetsua zapaltzean.

Gobernu Batzorde honek 2002ko apirilaren 18an hartutako akordioaren bidez, Obra eta Zerbitzuetako Ikuskatzaileari argitasunak emateko agintzea erabaki zuen erreklamatzailer andreak jarritako berraztertze errekurtsoan aipatzen den kale-garbitzaileari buruz.

Obra eta Zerbitzuetako Arduradunak 2002ko maiatzaren 7ko datan egindako txostenean adierazi du erorikoa gertatu zen egun eta leku horretan lanean ari zen udal langilea ez zela plantillako langile bat baizik eta Udalak Lanera eta Gizartera Egokitzeko programaren barruan sei hilabeterako kontratatutako bat, gaur egun Udal honetan lanean ari ez dena.

Batetik, garbi dago ezin dela argi eta garbi zehaztu zein izan zen erreklamatzailer erortzeko arrazoia, baina aldi berean garbi dago Udala ez dela gauza izan erreklamatzailerak baieztatzen duena frogatzeko beharrezkoa litzatekeen frogabidea aurkitzeko.

Honegatik guztiagatik, Gobernu Batzordeak, bilkuran dauden zinegotzien adostasunez

ERABAKI DU

LEHENA.- Eskatutakoa onestea eta NIEVES RUBIO MARTINEZ andreak 164,68 euro ordaintzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea, honen aurka eskatzaileak jar ditzakeen errekurtsoen berri emateaz batera.

D) Diego Francisco Lazkano Carnes jaunak egindako erreklamazioa, berak esatera, bere ibilgailuan, SS-4405-AS matrikuladuna, izandako kalteengatik 02-3-13an, egun hartan zebilen haize zakarragatik zabor-edukiontzia jotzean.

Diego Francisco Lazkano Carnes jaunak erreklamazioa egin du, eta 235 euro eskatu ditu pintura eta esku-lanaren gastuengatik, Udalaren zabor-edukiontzi bat mugitzean bere ibilgailuak izandako kalteak konpontzearen.

Udaltzaingoak eta Obra eta Zerbitzuetako Departamentuak egindako txostenek aitortzen dute Administrazioak izandako erantzukizuna sortutako kalteetan.

Honegatik guztiagatik, Gobernu Batzordeak, bilkuran dauden zinegotzien adostasunez

ERABAKI DU

LEHENA.- Eskatutakoa onestea eta Diego Francisco Lazkano Carnes jaunari 235 euro ordaintzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea, honen aurka eskatzaileak jar ditzakeen errekurtsoen berri emateaz batera.

E) Maria Dolores Amoedo Dieguez andreak egindako erreklamazioa, 2002ko urtarrilaren 6an, berak esatera, erori egin zelako Arrandegi kaleko 1 zk.ko parean dagoen oinezkoentzako pasabidean.

MARIA DOLORES AMOEDO DIEGUEZ andreak erreklamazioa jarri zuen, 2002ko urtarrilaren 8ko datan. Bertan adierazten zuen erori egin zela Arrandegi kaleko lehen zenbakiko parean, oinezko-pasabidetik kalea gurutzatzen hasita galtzadako irtengune batekin topo egitean.

Udaltzaingoak egindako txostenean garbi azaltzen da erreklamatazalea oinezko-pasabidetik pare bat metrora erori zela; beraz, oinezkoak pasatzeko dagoen tokitik kanpo.

Honegatik guztiagatik, Gobernu Batzordeak, bilkuran dauden zinegotzien adostasunez

ERABAKI DU

LEHENA.- Ezestea MARIA DOLORES AMOEDO DIEGUEZ andreak egindako erreklamazioa ez dagoelako kausazko loturarik erorikoaren eta udal zerbitzuen funtzionamenduaren artean, ezen erreklamatazaleak kalea gurutzatu zuen horretarako prestatua ez dagoen toki batetik, pasatzea ametzuten ez den tokitik, handik oso gertu oinezko-pasabidea dagoenean behar bezala prestatua bete behar duen helbururako.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea, honen aurka eskatzaileak jar ditzakeen errekurtsoen berri emateaz batera.

- Gai-zerrendatik kanpo eta bilkuran ziren zinegotzi guztien adostasunez gai-zerrendan sartzea onartu ondoren, honako akordioa hartu du Gobernu Batzordeak:

9.- 8. Ziurtagiria “Pasai Antxo (C-1 Azoka) Berriz urbanizatzeko” obrarena.

Gobernu Batzordeak ondoko obra-ziurtagiria onartu du, bilkuran diren zinegotzi guztien adostasunez:

Zk.: 8.a

Obra: Pasai Antxo (c-1 Azoka) Berriz Urbanizatzeko obra.

Obra zuzendaria(k): Juan Carlos Lapazaran jn. (Arkitektoa), Igor Urrutia jn. (Bideetako Ingeniaria) eta Jose Mari Irazusta jn. (Udal Aparejadorea).

Enpresa kontratistaren alde: DONOSTI ERAIKUNTZAK, S.A.

Zenbatekoa: LAUROGEI MILA, HIRUREHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI EURO ETA LAUROGEITA HAMAIKA ZENTIMO (80.396,91 euro).

Kontusail honetatik: AD-1660/00.

Eta besterik gabe, arratsaldeko 19.00etan amaitu da bilera. Udal Idazkaria naizen aldetik, agiri hau egiten dut bilkura buruaren oniritziarekin, eta biok sinatzen dugu eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin.

